

## IRAKASKUNTZAREN BERBALIZAZIOA

### **Sarrera.**

Ondo ederto irakatsi digu gure lanbideak zein gaitza den hezkuntzako praktikan aldaketak eragitea. Ahozko berbetaren gainean ere halaxe gertatzen da. Normalkuntzarako eskaini ditugun berbaldietan, harrera zabala eta xeratsua izaten du gai honek irakasleen artean, ezen gehiago edo gutxiago guztiak baitira kexu neska-mutilen komunikaziorako trebetasunik ezaz. Ostera, geroago ahozko berbetako programak abian jarri gura direnean, arazo ugari agertzen da. Lehen lehenik, material egokirik eza arrazoitzen da, edo ikasle kopuru handia, edo aulki-mahaien mugiezintasuna.

Berez, irakasleen partetik ipintzen diren trabak ez dira ez-gauzak, zeren praktikatik baitakigu, esate baterako, trebetasun komunikatiboak lantzeko gune integratzaileak topatu behar direla gelan eta ez dela erraza, ezen berbaz jardun ez dezaten egunero lerroetan kokatzen ditugun gazteak zirkulura ekarri behar dira eta.

Hala eta guzti, onartu beharko dugu, joera hedatua dela 18 ikasletako taldeari nahiz 40koari ahozkoa modu beretsuan irakastea.

### ***Ahozkoaren irakaskuntza inplizittoa eta esplizittoa***

“Irakaskuntza inplizittoaren defendatzaileak, kasurako Rivers (1964), gehituko litzaizkieke uste dutenei ahozko hizkera ba-

natu egiten dela eskolan, nolabait esateko, irakasle guztien artean. Ostera, irakaskuntza esplizitoaren aldekoak, Carton (1971) adibiderako pentsatzen dute hizkuntzaren ikasketa ohitura bat baino zeozer gehiago dela, eta ondorioz, haren irakaskuntzak esplizito izan behar duela, trebetasun intelektualei dagokien eran” Cuadernos de Educación, 38.

Guk ahozko berbeta modu inplizitoan eta esplizitoan irakastea proposatzen dugu; ahozkoa klase guztietan eta irakasle guztiek lantzea; modu esplizitoan, ahozkoa irakastea Hizkuntza eta Literaturakoei utzirik.

### *Irakasle guztiak ahozko berbetaren irakasle*

#### **IRAKASLE GUZTIAK HIZKUNTZA IRAKASLE**

Euskal hizkuntza eta literaturako irakasleari dagokiona	Irakasle guztiei dagokiena
Ahozkoa, batua eta euskalkia irakastea eta erabiltzea.erabiltzea	Ahozkoa, batua eta euskalkia

Irakasle guztiek dakite kultura transmititzaile direna. Horrexegatik, euren berbakera eredu eta erreferentzi gune garrantzitsua da ikasleentzat. Ez dute, beraz, arazo larriegirik ahozko berbetaren irakaskuntza inplizitoaz berba egiten zaie-nean. Bestalde, Krashen (1981) eta beste teoriko batzuk ados dira honetan, uste delako, edozein ikasgelatako hartu eman berbalak egokiak direla ikasleen komunikazio-trebetasunak hobetzeko.

Ahozko berbeta funtzionala irakasle guztiek irakatsi ahal izateko, irakasleen hasierako borondatea ezinbestekoa da, baita koordinaturik lan egitea ere. Gure esperientziak diotenetik, gaian aditua den pertsonaren bat ere behar da irakasleen taldean. Gainera, gai desberdinetako irakasleek ere oinarri-oinarriko formakuntza jaso beharra dute ahozko berbeta irakaste-ko metodologia eta edukien gainean, esate baterako,

Inguruneko gaian agertzen den eztabaida probetxuz eramateko.

Ondo jarduteko, metodologia parte hartzaileari egin behar-ko litzaioke lekua, irakaslearena izan ez dadin input bakar-rik ikasgelan. Hortxe agertzen zaigu etxetik euskaldun datozen neska-mutilen eta erdaldun datozenen arteko ekarri desberdina, atxikitze-eredukoek -etxetiko euskaldunek- jarri-egokitasunean, erregistroetan lagunduko digute, murgiltze-eredukoek, -hau da, familia erdaldunetatik etorri- batez ere, gaitasun komunikatiboan.

### ***Irakaskuntzaren berbalizazioa***

Edozelan ere, irakasle guztiak ahozko berbetarako irakasle baliozko bilaka daitezten, ezinbestekoa da Irakaskuntzaren Berbalizazioa deritzagun paradigmari jokatzeko.

Berbalizazioa deritzagu, ideiak, sentimenduak, gertaerak berbalizatzeari, elez adierazteari, hitzez iragartzera emateari. Ikasgelan mutu dautzan mahai, liburu, arbel zein koadernoak mintzoaren sarean sartzea da berbalizazioa. Gelan dihardugula dihardugunean, egoera komunikatiboa sortu behar da, heziketa mutua gainditzeko. Horretarako, goizeko egunonetik beretik eskatu behar dugu erantzuna, ez dakit tankerako topikoetan ezkutatzeko gaitzetsiz.

Behin ahozko jardunean dihardugunean, euskalkia berez- berez azaltzen zaigu, ezen euskara idatzia bakar- bada ere, euskara mintzatuak anitz baitira. Beraz, euskalkia zergatik baino zelan izango da auzia, nola gauzatu behar dugun euskara batuaren jorra eta nola euskalkiarena.

Berba egiterakoan ez ditugu gogoan hizkuntzetako departamentuak soilik, asignatura guztietakoak baino. Ahozkoa gai desberdinen inguruan praktika daiteke, edozein gertaeraz balia gaitzke berba egiteko. Nahi balitz hala izendatu, ahozkoa zehar gai bat da, arlo guztiak hartzen dituena, irakasle guztiei da-

gokiena, eraberean erabilgarria matematikako zenbakiak lantzean nahiz fisikako neurriak. Ez baita gomendagarriana 2-1 (bi bat) irakurtzen duen ikasleari, bi eta bat irakurtzen matematikakoak baino euskarakoak irakatsi beharra.

Irakaskuntzaren herbalizazioak ez du eskatzen eguneroko jardunetik aldentzerik –Euskal Hizkuntza eta Literaturan baliatuko dira, batez ere, hizkuntzen irakaskuntzarako erabili ohi diren ahozko ariketez edo bertsoaritzaz-, egunerokoan aski da irakasleak berak azaldua azaleraztea ikasleari edo liburuko idatzia ahoz emanaraztea edo arbeleko buruketa bozgoraz adieraziz osotzea.

Berbalizazioa irakasbide bat da, metodoa, ariketa apartekoa baino gehiago. Idatzizko euskarria hor izango dugu testuliburuetan, koadernoan, arbelean, agendan. Ahozkoa ezin etor daiteke ordezkatzera, bai, ordea, inoiz galdu behar ez zuen lekua berreskuratzea, Aristotelesen peripatetik hura geureganatzea.

### ***Adierazteko gai zarena dakizu***

Ingalaterrako James Britton eta beste ikerlari batzuek iradokitzen dute, kontzeptu jakin baten ikasketa –edozein irakasgaitan- ez dela lortzen harik eta kontzeptu horren gainean berba egiteko edo idazteko gai izan arte, hau da, geure ahozko edo idatzizko diskurtsoan integratzen dugun arte.(Cassany, 184).

Badakigu, orduan, gogoan daukaguna, ikasi duguna herbalizatzekeo gauza garenean. Zelan herbalizatzen dugu? Ba, geure herbak erabiliz, geure terminologiara ekarrita. Ez buruz ikasia errepikatuta, ezen ideiari eusten baitiogu, baina adierazi nork bere hitzen hidez.

Hara oinarria, ahozko testuak irakasle guztiek eska eta lantzen dituzten

Euskalkian nahiz batuan mintzatu, zientzia horretako ideolektoak eta molde asko inposatuko zaizkio ikasleari.

### ***Hizkuntza eta Literaturako irakaslea ahozko berbetaren irakasle.***

Eskolan beti eta klase guztietan ematen den ahozko berbetaren irakaskuntza inplizitoaz gainera, beharrezkoa da ahozkoaren irakaskuntza esplizitua ere, alegia, hizkuntza eta literatura-ko irakasleak gauzatzen duena. Gainera, beroni dagokio beste irakasleen ahozkorako kriterioak jartzea.

#### **Lau hizkuntza trebetasunak**

E. H. eta Literaturako irakasleei dagokie

	<b>Atxikitze-eredua</b>	<b>Murgiltze-eredua</b>
1 Entzumena	Euskalkia eta batua	Euskalkia eta batua
2 Mintzamina	“ “ “	Batua (Beti euskalkitua)
3 Irakurmena	“ “ “	Euskalkia eta batua
4 Idazmena	“ “ “	Batua

Laukietan ikusten dugunez, gela berean dira eredu bieta-koak, bitzuak euskaldun osoak izateko.

Ezin ahaztuko dugu atxikitze-eredurako ukipenean bizi direla euskara batua eta euskalkia pertsona berak txandaka darabiltzanean (Weinreich) eta egoera diglosikoan –Ferguson-ek diglosia hizkuntza eta dialektoaren arteko haremanak azaltzeko sortu zen eta–.

Bestalde, gogoan hartu behar da bizkaiera –edo edozein euskalki– heteronomoa dela, zeozeren –kia, hau da euskara bakarrarena.

Idazmena aztertzen badugu, aipatu beharko dugu atxikitze-ereduan ardatza euskara batuak eramango duela eta euskalkia aldamenean joango dela. Horrexegatik da egokia euskara batua ardatz dela lantzea euskalkia, ezen 12 urterarte euskalkian bakarrik ikasiez gero, ez bailitzateke ohartuko ikaslea bizkaierakotzat hartzen dituen elementu ugari euskara batuko ere badirela, hala, *kanpai hotsa* edo *ederto*, behintzat Oiartzuneraino

iristen dena. Alderantziz ere gertatzen da, *ditu* batukotzat irakasten denean edo *eza* laguntzailea, bizkaieraz arrunta zena batukotzat baino hartzen ez denean, edo *legez*, Leizarragak ere badarabilena.

Ez da zalantzarik, euskara batuari hurbilen zaizkion formak direla gomendagarri, ikaslea alferriko nekez samatu barik, erreferentea den moldea, euskara batua begi aurrean dela jabetzen baita errazen.

Beraz, planteamendua ez da adin baterarte bizkaiera eta ostean euskara batua, baizik batua ardatz bai, baina paralelismo diglosikoan bizkaiera ere ikasiz. Horrenbestez, umeak hiru urterik hamazortzira etengabe behar du euskalkia eta batua jorratu.

Baina euskalkia beti ikasi behar da, zeren euskara batua ikasteak ez baitakar euskalkian alfabetatzea. Euskalkia ikasten ez bada, etxekoa osotu barik gelditzen da, fosilizatuta. Adibiderako, ikasleak badaki *ganorabako* idazten, ostera ez da gai *diru bako*a erabiltzeko. Halaxe gelditzen dira okerrak ere zuzendu barik *Neuk eroangotsut kotxian*, euskara batuan *zaitut* badakienean.

Ahozkoan dihardugunean atxikitze-ereduan, ardatza ikasleak dakarren berbeta izango da haurtzarotik hasi eta batxile-rra burutu artean.

Ikasgelan euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkia lantzerakoan, halako lauki sinoptikoz balia gaitzke:

Adibidez:

Euskara batua	Euskalki literarioa (bizk.)	Azpieuskalkia
Etorri zait	Etorri jat	Dat/ daste/ jata...

### ***Ikasleen testu adierazgarriak:***

Ahozko testuak entzun ahalko bagenitu, hemen jartzen ditugun eredu idatziak bezain esanguratsu gertatuko lirateke.

Ikaslea	Euskara batua	Euskalkia	Azpieuskalkia
<p><b>1.a</b> <b>Bermeo</b> <b>Batxilerrekoa</b></p>	<p>Behin batean, amak esan zion Txano Gorritxori amonaren etxera joateko, gaisorik zegoenez, janari apur bat eramatera. Bertarako bidean Txano Gorritxok otsoarekin topo egin zuen eta honek zera esan zion, bere amonaren etxera joateko biderik laburrena hura zela eta ez bestea. Txano Gorritxok jaramon egin zion, baina egia esan, otsoak esandakoa gezurra zen eta otsoa bera abiatu zen amonaren etxera bide laburrenetik. Amonaren etxera heldu zenean hau jan egin zuen eta bere ohera sartu zen mozorroturik.</p>	<p>Behin baten, Txano Gorritxori amak eskatu eutson janari apur bat eroateko amumari hau gaisorik egoalako. Txano Gorritxok esana egin eban eta bidedetik lorak hartzen ebilela otso gaizto bat aurkitu eban. Honek esan eutson bide aproposena, laburrena zalako, ha zala eta ez bestea. Txano Gorritxok kasu egin eutson, baina otsoa maltzurra zanez, guzurra esan eutson eta bera izan zan bide laburrena hartu ebana, eta ondorioz, arinen heldu zana amumaren etxera. Etxe hareta- ra heldu zanean, amuma jan egin eban...</p>	<p>Egun baten, Txano Gorritxuri amak esantxon amumañe junbidauela jatekue eruten, geisorik dauelako koitxadi. Txano Gorritxuk aman esnari kasu eintxon eta han jun zan poz-pozik lorak batzien biden. Baie halako baten, otso zantar bat agertuten jatxo eta dinotso hori bidie askoz be luziaue dalez hobeto datortxola bes- tetik jutie. Beste tentelak kasu eintxon eta badaezpadako otsuek aurrie hartun eta amuman etxera ailega zan askoz be arinau. Honek amuma jan zauen eta ohire barrure sartun zan amuma disfrazata.</p>

<p><b>5.a Garazi</b> <b>Kanbon</b> <b>ari da</b></p>	<p>Behin bazen Txano Gorritxo izeneko neska bat. Bere etxetik joan zenbere amatxiri arratsaldeko askaria. Eramaitera. Zare bete batean zuen askaria. Otsoak ikusi zuen eta arbol baten gibelean gorde zen Txano Gorritsoren zain. Pasatu zelarik otsoa etorri zitzaion mintzatzerara.</p> <p>- Nora zoaz neska? (...) – Ah, bai! (...) ...berantean helduko naiz. (...) Otsoak amatxiren etxea ezagutzen zuen eta bide laburrago bat hartu zuen hara. (...) ... eta bere tokia hartu ohe barnean.</p>	<p>Behin bazuxun Txano Gorritxo izeneko ñeskatto bat. Bere etxetik juan zuxun zare batekin, jatekoz betia, bere amatxiri atsaskariaren eramaitiat. 1) Otso batek ikusi zixin eta bidaiari zuhaitz baten gibelean kukutu zuxun neskaren beha. Txano Gorritxo pasatu zuxulaik, 2) otsua jin zakoxun 3) elekatzeat.</p> <p>- Norat abian xira hola? (...) Ah, ba. (...) Otsuak etxe-ko bidia untsa ezautzen baitzien, beste bide bat hartu zixin, laburro. (...) eta bere lekia hartu ohe zolan</p>	
--	---	--	--

Ikasleak euskara batua tresnatzat hartzen duenean eta etxe-koa hartzen duenean, ez du era berean jokutzen. Egin diezaio-  
gun so Bermeoko lehen ikasleari. Ez euskara batuan, ez eus-  
kalki literarioan otutzen ez zaizkion baliabideak zaizkio buru-  
ratzen ama hizkuntzan. Hara beste bietan sartu ez eta  
azpieuskalkian paratzen dituenak: *koitxadie*, *poz-pozik*, *otso*  
*zantar*, *dinotso*, *amama disfrazatu*, *beste tentelak*, *badaezpa-*  
*dako otsue*, *aurrie hartun*. Ez da gaia euskara batuak –batua



eta bizkaiera literarioa- fonetismoak idatziz egokitzen duela, ez, adjektibo, joskera, sintagma adierazgarriok ez dira agertu ere egiten batuan eta bizkaiera literarioan. Hori da garrantzitsua. Etxekoa aktibatu duenean, ur biziagoko iturria hasi zaio dariola.

Ez da kontua, beraz, hitz edo egitura bat beste molde baten ematen duela bakarrik. Gainera eskolari dagokiona da, irakas-kuntza esanguratsuaren bitartez, etxetik dakarren hizkera horretan alfabetatzea, janztea, duintzea.

Garaziko 5. ikasleak zuka idazten digu testua –ez ditugu hemen akatsak ukituko– Erregistro aberatsa oso, ikasleak eskolan ikasi aitzin badazaguena. Eskola ailegatzen ez den erregistroari dagokiona, eskola baino haragoan bizi dena. Ezen ez da ahanztekoa Euskaltzaindiak 1994ko azaroan hikako moldeari doakion erregistro alokutiboa baino ez duela oraindainokotan onartu.

Erkatzen baditugu euskara batukoa eta 5. ikaslearena ohar-tuko gara, euskara batuko bertsioan konponente anitz dela euskara estandarrean irazi beharrekoa eta eskolak integra dezan erdietsi ez duena: *Pasatu zelarik otsoa; askaria eramaitera...* Horiek euskara estandarrean arrunt erabil daitezenean, euskara hori Behe Nafarreratua, Zubereratua ere bilakatuko litzateke.

Zukako tratamenduari buruz esan genezake, ekialdeko euskalkietan *zu* solaskidearen 2. pertsonaz gain (*Zu joan zara, Zuk dakizu...*) erregistro alokutiborako aldaketa ere bideratzen duela. Horretara, *etorri da* eta *etorri zen* modukoak zukako alokutiboan ematen dira: *etorri duzu* eta *etorri zuzun*. Hau da, solaskidea den *zu* horren marka adizkian txertatua geratzen da.

Txillardegik matematikoki frogatu duenez, herbeta minorizatuaren erabilera halabeharrez da txikiagoa ezagutza maila baino. Hala ere, eskolan euskara ona eta ondo irakastea dago-kigu eta sistema linguistikoa erabileran baino ez daeraikitzen.

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta*